

## NARRATIBA

## Haize bila

## GALERNA

Iratxe Esnaola  
Elkar, 2010  
92 orrialde. 11 euro

Iban BALERDI

Ondarroako Udalak eta Elkar argitaletxeak antolatutako IX. Augustin Zubikarai nobela laburrentzako saria irabazita izan dugu idazle donostiarraren berri. Baina ziurrenik, bestela ere helduko zitzaigun, handik edo hemendik, sortzaile honen oihartzuna. Ederra egin baitu bere lehenengoa eta, aldi berean, muga goian jarri.

Kostaldeko hiri zehaztugabe batean kokatzen da honako eleberria. Uda amaitzeaz da eta istorioko protagonistentzat ere gauzak argitzeko garaia heldu da. Nora eta Sebastian Bechenerrek osatutako bikotea dugu alde batetik, eta hoteleko zuzendaria eta haren alaba, bestetik. Liburuan zehar, ordu gutxiren buruan beraien arteko harremanak nola katramilatzaren diren ikusiko dugu.

Idazleak, eguraldiaren eta pertsonaien harremanen arteko paralelismoa egiten du. Hortik dator izenburua. Hasieratik guztiak galernaren zain daude, ekaitz bat-batekoaren esperoan. Oso eguraldi bero eta sargoria izan dute uda garaian, eta horrekin hausteko desiratzen daude. Antzematen da haustura hori badatorrela, kapituluz kapitulu gertuago sumatzen baita, azkenean eztanda egiten duen arte. Tentsioari etengabe eusten laguntzen dio honek guztiak ere.

“Galerna” pertsonaien nobela dela



esan daiteke. Bere onena emana duen bikotea, Noraren beharra sentitzen duen hoteleko zuzendaria, eta helduarora behar baino azkarrago ailegatuko den neskatoa. Maisuki erakusten zaigu bakoitzak jasaten duen egoeraren konplexutasuna. Ezinezko maitasunak, gizartearen dogmak, porrot pertsonalak edota erruduntasun sentsazioak ere, giro ilun eta lazgarria mantentzeko orduan ongi erabilirikak pieza bihurtzen dira. Era honetakoak baitira egileak lantzen dituen gaiak, nahiz eta guztia gertatzen den inguru turistikoak zerbait desberdina irudikatzeraman gaitzakeen.

Bereziki interesgarria iruditu zait libu-

ruaren laugarren atala, Nora heldua eta neskato nerabea bakarrik geratzen direnean lehenengoaren apartamentuan. Neskaren aitarekin oheratzen ibili dena batetik, eta Noraren senarra bereganatu duena, bestetik. Bien arteko borroka psikologikoa nola garatzen den, zaharrenaren eskarmentuaren eskutik hasieran, formak mantendu nahian baina formak galduz; gazteenak, aldiz, behetik gora egiten du, hastapeneko lotsak baztertuz min gehien egiten duen horretara joz. «Aitaren maitale izandako baten antza duzu, Nora. Bizkarra agerian uzten zioten soinekoak zituen hark beti, zuk bezala. Aita ez zitzaion hurbildu uda batean. Emakumeak amore eman zuen. Nola jakin nuen nik? Senarraren jaka ipini zuelako sorbaldean, jada ikusgarria ez zena estaltzeko. Zuk ere hobe duzu jakaren bat eskura eduki».

Izan ere, bi emakumezkoak dira nobelaren benetako protagonistak, beraien ingurura biltzen den gizonezko parearen mailan geratzen den bitartean. Gustatu zait nola jorratzen duen bi andrazkoen erlazioa, Noraren kasuan batik bat.

Liburu hau orain dela urtebete baino gehiago bukatu zuela entzun diogu idazleari, eta geroztik ez duela idazteko beharrik sentitu. Eta “Galerna” hiru bat urteko lanaren fruitua omen da. Ondorioz, badirudi pixka batean ez dugula Iratxe Esnaolaren lan berririk irakurtzeko modurik izango. Har dezala bada, behar duen denbora, eta ea besteren batekin gozatzeko aukerarik eskaintzen digun, askok esker-tuko genioke-eta.



## Mikel IBARGUREN

## Zorionari txistuka

Zoriona lortzeko bideen eztabaida zaharra da antzinako filosofoen artean. Zentzu horretan,

Epikurok sortutako hedonismoak adiera ezberdin ugari izan du mendeetan barrena. Gaur egun, individualismoarekin edo kontsumismoarekin lotzen da, batez ere. Baina, begiratu ezberdin bat emanez eta kontzeptuak duen zama negatibo hori kenduz Michel Onfray (begira nondik!) filosofoak egiten duen irakurketa arras interesgarria da. Berak proposatzen duen hedonismo gaurkotu hori izatean oinarritzen baita, edukitzean baino (gauza gehiago edukitzeak ez baita, nahitaez, hobeto bizi garelako esan nahi). Nolerebait, existentzia gozatzeko aldarririk egiten du, Atenasko filosofo baztertua erreskatatuz. Are, gaur eguneko ezkerrek hedonismoa bere edukietan txertatu behar duela dio, kolera dinamika moduan eta borondate libertarioa tresna gisa erabiltzearekin batera.

Hemen, bestalde, sufrimendurako gaitasun handia dagoela zioen Petra Elser-ek elkarrizketa batean, eta euskaldunok zoriontasunari balio handiago eman beharko geniokeela, bizitzako helburu gisa zorionaren bila abiatuz; ez individualki bakarrik, kolektiboki ere bai.

«Zorionak ez digu itzalik egiten», ordea, Juanra Madariagak dioen bezala. Baina erortzearen logikak altzatzea dakarrenez, momentuko edozein bozkario txikienei jarraiki «bizitzak oparitzen dituen landa berdeen» bila egiten dut nik ere ahal dudanean; zoriona ez Itaka bezala ulertua, Itakarako bidean bizitzako esperientzia gisa baizik. Ibilian lortzen dena.

Aldika, epikurear jartzen naiz eta enologoak ardoarekin bezala bizitza begiratu, usaindu eta baratz dastatu behar dela pentsatzen dut. Sufrimendua berez etortzen baita; zoriona, aldiz, bizitzarekin dugun jarreraren arabera da. Agian, zoriona bilatu beharreko irakaspena ere badelako, aurkituko dugun jakin ez arren.

Baina badakigu basamortuan putzuak badirela.


## KALERATU BERRIAK



## MOVIMIENTO COMUNERO EN NAFARROA

**¡VIVAN LOS COMUNES!**  
José Miguel Gastón  
Txalaparta, 2010  
407 páginas. 20 euros

Historiador y profesor en el Instituto de Enseñanza Secundaria de Tafalla, José Miguel Gastón analiza en esta obra la respuesta campesina ante las medidas privatizadoras finiseculares de los bienes comunales en Nafarroa. Una lucha con el objeto de conseguir un reparto más equitativo y justo de la tierra, de su tierra.



## RETAZOS DEL PASADO, UNA VIDA

**MALETAS PERDIDAS**  
Jordi Puntí  
Salamandra, 2010  
456 páginas. 17,50 euros

Barcelona, años 60 y 70, un Estado español aislado de una Europa en plena efervescencia cultural, social y política. Los cuatro hijos del escurridizo Gabriel Delacruz se conocen y reencuentran cuando aquél desaparece del mapa. Juntos compondrán el retablo del existir de ese padre que llevan esperando toda una vida.



## INCANSABLE LUCHADORA

**LA HIJA DEL ARTILLERO**  
Fermín Gongeta  
Txertoa, 2010  
354 páginas. 16 euros

Novela centrada en la vida de Dolores Ibarruri, que abarca desde que, con apenas quince años, participó activamente en la gran huelga de 1910 hasta la caída de Madrid en manos de los franquistas, en 1939. El autor no reivindica su memoria como mito, sino como ejemplo de rebeldía contra los poderosos.



## ISTORIO HUNKIGARRI BAT

**TIGREAK HONDARTZAN**  
Maribel Aiertza  
Elkar, 2010  
85 orrialde. 9,50 euro

Animaliek txiki-txikitatik txunditu zuten Ander, hezur-haragizkoek nahiz irudimenezkoek. Ezbeharrak edota patuak zirkuko bizimodura eramán zuten umetan, etxeoengandik urrun. Amak, hil aurretik, bere bizitzaren benetako istorioa gutun batean idatzita utziko dio Nino izenari erantzuten ikasi zuenari.